

IGERIAN IKASTEKO SUSTAPEN KANPAINA

2026 - 2027 IKASTURTEA

Donostia Kirolak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei zuzenduriko Igerian Ikasteko Sustapen Kanpaina bultzatu eta antolatzen du.

1.- Parte hartzeko baldintza orokorrak.

1.1.- Kanpainan parte hartuko duten eskola-umeak Lehen Hezkuntzako 1., edo 2. mailakoak izango dira.

1.2.- Ikastetxe bakoitzak lehen aipatutako mailako nahi adina talde inskribatu ahal izango du; baina talde hauek, irizpide orokor gisa, 8 lagunekoak izango dira gutxienez eta 45ekoak gehienez (bi gela).

1.3.- Ikastaro bakoitzak 20 saio izango ditu gehienez.

1.4.- **DONOSTIA KIROLAK** ikastaro bakoitza aurrera eramateko beharrezko diren bitarteko guztiak eskura jartzeko erantzukizuna izango du: instalazioa, ordutegiak, irakasleak eta eman beharreko programa teknikoa, beti ere Gipuzkoako Igeriketa Federazioak jarritako irizpide teknikoak jarraituz. Garraioa eta irakasle laguntzaileak, halakorik behar izanez gero, ikastetxe bakoitzaren erantzukizuna izango dira. Ikasturte honetako garraiorako Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia Kirolak emango duten diru-laguntza eskatzeko aukera edukiko dute.

Ikastetxeek Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailan kanpaina egin nahi badute, Donostia Kirolak instalazioak dohainik utziz lagunduko die. Kasu honetan, saioak emango dituen pertsonala ikastetxeen ardura izango da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen diru-laguntza eskatzeko aukera edukiko dute.

1.5.- Ikastaroa hasi baino 10 minutu lehenago igerilekuko aldageletan egon beharko dute eskola-umeek, eta taldearen ardura duen irakasleak aldageletan egon beharko du bere eskola-umeekin. Irakasleak, era berean, igerilekuraino lagundu beharko ditu eskola-umeak, eta bertan gelditu ikastaroaren lehendabiziko egunetan, gutxienez; eta, edozein kasutan, taldea jarduerari egokitzen den neurrian, kanpainako monitoreak egoki ikusten duen arte. Taldeen arduradunak / irakasleak une oro jarduera aritzen den instalakuntzean egon behar dira, ezin dira kiroldegitik atera, ikasleren batekin edozein arazo izanez gero, ahalik eta azkarren erantzuteko moduan egon daitezen. Ikastetxeko jarduera den heinean, irakasleak dira horren arduradunak.

1.6.- Eskolak parte hartuko duen talderen batean, behar bereziak dituen eskola-umeren bat egonez gero, eskolako irakasle bat egongo da igerilekuan, nahitaez, ikastaro guztian zehar, monitoreei laguntza emateko.

Ekintza euren taldearekin batera egin ezin dezaketen eta langileria tekniko osagarria behar duten eskolaumeen kasuan, ikastetxeak eskaera egin beharko dio Donostia Kirolari idatziz, **taldearen izenematea egiteko duen epe berean.**

Eskaera honen onarpena, erreserbaren egiaztapenaren gutunean zehaztuko da eta **kasu honetan, eskolaumeen taldeak ezingo ditu 45 ikasle baino gehiago izan.**

1.7.- Eskola-umeen irakaslea edo arduraduna ezingo da armairutxo gunera kaleko oinetakoekin pasa, horretarako txankletak erabili beharko dituelarik. Era berean, igerileku gunera ezingo da pasa kaleko janzki edo oinetakoekin.

1.8.- Eskola-umeen irakaslea edo arduradunak bainu txanoa erabiltzea derrigorrezkoa dela gogoraraziko die bere ikasleei; eta, era berean, igerilekuan sartu baino lehen nahitaez duxatu behar direla. Horretarako igerilekuaren eremuan bertan jarritako duxak erabiltzea gomendatzen da.


1.9.- Gomendatzen dugu armairutxo bi edo hiru ikaslek batera erabiltzea.

1.10.- Eskola-umeek proba bat egingo dute ikastaroaren lehenengo egunean igeriketaz duten ezaguera neurtu ahal izateko; horrela, maila horren arabera, monitore bakoitzeko 15 eskola-umeen taldeak osatuko dira.

1.11.- Guraso bat edo beste aldagelara laguntzera sartu nahi izanez gero, egin ahalko du beti ere, gehienez ere bi lagun baldin badira eta aldeztu aurretik, taldeen arduradunek izen abizenak utzi badituzte kiroldegiko harreran. Kiroldegira eta konkretuki aldageletara sartzen den guztiak identifikatuta eduki behar ditugu, arazo larriak saihesteko aldera, eta adin txikikoen erabateko babesa bermatu aldera.

2.- Izena emateko prozedura.

Izen emateak **interneten bidez** egin beharko dira, Eskola Kirolaren izena emateko aplikazio informatikoan: https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DDEKirolKudeaketaExtWEB?locale=eu_ES Horretarako, ikastetxe bakoitzak dagoeneko eskuratu duen identifikazioa eta pasahitza erabili beharko dira.



The screenshot shows the KIROLDATA web application interface. At the top left is the logo for Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa. At the top right are language options: ? eu es. The main content area displays two login screens side-by-side. The left screen is titled 'FEDERATUTA KIROLEKO SARRERA' and features a 'SARTU' button. Below the button, it lists '* Federazioak, Klubak'. The right screen is titled 'ESKOLA KIROLEKO SARRERA' and features a 'SARTU' button. Below the button, it lists '* Ikastetxeak, Klubak, Federazioak, Udal Teknikariak'. Both screens have input fields for 'Erabiltzaia' (Username) and 'Pasahitza' (Password). The bottom of the page contains a footer with the text 'Gipuzkoako Foru Aldundia - Diputación Foral de Gipuzkoa' and links for 'Lege oharra', 'Pribatutasun politika', and 'Erabilerraztasuna'.

2.1 - Eskola-umeak eta arduradunak ("Kirolariak") alta emateko prozedura

Aplikazio informatikoan izena aurretik inoiz eman ez duten eskola-umeek, "kirolariak" izeneko atalean "Alta masiboa" laukitxoan, alta eman beharko dute izena. Horretarako, ikasle bakoitzaren lehen eta bigarren abizena, izena, sexua eta jaiotze data idatzi beharko da.

2.2 - Taldeak alta emateko prozedura

Ikastetxeak talde bakoitzeko izen emate bat egin beharko du, eransten den koadroan (2026-27 Igeriketako programazioa) egiten den igerileku, data eta ordutegiaren arabera banaketa jarraituz.

Horretarako, "Ekipoak / Taldeak" eta "Berria" atalean sartu behar da eta dagokion azpimenuko aukera hautatu:

Ibilbidea: Heziketa hastapeneko programa

Kategoria: Aurrebenjamina (1. eta 2.) , Benjamina (3. eta 4.)

Sexua: Mistoa

Kirola : IGERIKETA

Jarduera: IGERIAN IKASTEKO IKASTAROAK

Ikastaro bakoitzeko datu guztiak bete eta gero, gorde beharko da.

2.3 – Kirolariak taldean sartzeko prozedura.

Datu guztiak bete eta gorde ondoren, taldea aukeratu behar da eta parte hartzen dituzte eskola-umeak taldean sartu behar dira.

2.4.- Izenemateko epeak.

Kanpaina honetako ikastaroetan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epeari irailaren 1an emango zaio hasiera, eta bukaera, berriz, irailaren 14an lehenengo ikastaroan parte hartuko dutenentzat eta 21an gainontzeko parte hartzaileentzat.

2.5.- Izen emateak zuzen ez betetzea.

Aldaketaren bat izanez gero aurkeztutako datuetan edo aukeratutako egunetan, Kiroletako Udal Patronatuari jakinarazi beharko zaio, posta elektronikaren bidez (miguel_lopez@donostia.eus), ahalik eta lasterren.

3.- Jardueraren kostea.

Kanpaina honek Lehen Hezkuntzako lehen zikloan erabateko diru-laguntza du, beraz parte hartzen duten ikastetxeei ez zaie instalaziorako sarreragatik, ezta klaseak hartzeagatik ere, inongo kuotarik kobratuko.

Ikastetxeek Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren ikasmailan kanpaina egin nahi badute, Donostia Kirolak instalazioak dohainik utziz lagunduko die. Kasu honetan, saioak emango dituen pertsonala ikastetxeen ardura izango da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen diru-laguntza eskatzeko aukera edukiko dute.

Ikastetxeak, jardueraren lekura etortzeko garraioa behar izanez gero, bere gain hartu beharko luke horren kostea. Garraiorako Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostia Kirolak emango duten diru-laguntza eskatzeko aukera edukiko dute.

4.- Heziketa Bereziko Zentroen parte-hartzea.

Aipatutako zentroen ezaugarriak kontuan izanik, Heziketa Bereziko taldeek parte hartu ahal izango dute kanpaina honetan, beren ikasle guztiak adinaren arabera taldeetan sailkatuz.

Izenematea, epeak eta prozedurak, kanpainako orokorrak izango dira, kasu guztietan.

5.- Aseguru orokorra.

Kanpainan parte hartzen duten guztiek, Gipuzkoako Foru Aldundiak kirol jardueraren arriskuak estaltzeko duen aseguru orokorraren babesa izango dute, partaide bakoitzaren osasun aseguruaren kontura egonik gerta litezkeen istripu edo lesioek eragindako mediku laguntzari dagokion gastua.